## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

## Zk-5080

AGINDUA, 2003ko uztailaren 15ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruan 2003. urtean babes daitezkeen jardun batzuei esleitutako kredituen zenbatekoak iragartzen dituena.

Etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan hainbat laguntza-ildo diruz estaltzeko esleitutako kredituen zenbatekoak urtero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea da etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan egun indarrean dagoen araudian jasotako berrikuntza bat.

Kredituak aldatzeko legez dauden aukerak kontuan hartuta, bideratutako kredituak, hasierakoak edo eguneratutakoak, iragartzeko ezarritako baldintza horren bitartez, nabarmen erantzun nahi zaio herritarrei ematen zaien informazioa hobetzeko asmoari, laguntza sistema horien onuradun izan daitezke-eta.

Etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko egungo sisteman, badira urtero eraginkorrak izateko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduaren deialdi espezifikoari lotutako jardun-ildoak, praktikan hala gauza daitezkeenak.

Kasu horretan, Agindu horren mamian zehazten da zein kreditu dauden eskuragarri eta zein den laguntzak esleitzeko prozedura.

Azkenik, badira etxebizitzen sustapena pizteko jardun batzuk (babes ofizialeko etxebizitzen itunpeko sustapena) lehiaketa publikoaren bidez egiten direnak eta, ondorioz, hobariak zehazteko deialdi publikoa egiten denean, ordainketa- eta konpromiso-kredituak berariaz bideratzea beharrezko dutenak.

Beraz, kredituak iragartzeko baldintzak zuzenean izango du eragina ondoko aginduetan jasotako laguntza-politiketan, 2003. urtean:

Etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko urriaren 9ko Aginduan. Izan ere, 1. , 2. Eta 3. Xedapen gehigarrietan hauek jasotzen baititu: erabilitako etxebizitza librea erosteko laguntzen finantzaziorako eskuragarri dauden kredituak iragarri beharra; kreditu horien osaera eta eguneratzea; zein prozedurari jarraitu behar zaion, hala gertatuz gero, laguntzen emateari uzteko, eta, azkenik, laguntzak emateari uzteak nolako ondorioak izango dituen ebazteko dauden espedienteetan.

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

## N°-5080

ORDEN DE 15 de julio de 2003, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se da publicidad a los importes de los créditos consignados para la financiación de ayudas de diversas actuaciones protegibles en materia de vivienda y suelo 2003.

Una de las novedades introducidas por la normativa actualmente en vigor en materia de vivienda y suelo, consiste en dar publicidad, anualmente, en el Boletín Oficial del País Vasco, a los importes de los créditos presupuestarios consignados para la cobertura financiera de diversas líneas de ayudas en materia de vivienda y suelo.

Dicho requisito de dar publicidad a los créditos presupuestarios habilitados, inicialmente o actualizados, según las posibilidades legales de modificación de créditos, responde a la evidente intención de mejorar los niveles de información a los ciudadanos, potenciales beneficiarios de dichos sistemas de ayuda.

En el sistema actual en materia de vivienda y suelo, también existen líneas de actividad, cuya operatividad anual está vinculada a la convocatoria específica de la correspondiente Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, para dar virtualidad práctica a las mismas.

En este caso, en el cuerpo de la citada Orden se especifican los créditos disponibles y el procedimiento de adjudicación de las ayudas.

Finalmente, existen determinadas operativas de incentivos a la promoción de viviendas, el ámbito de la promoción concertada de viviendas de protección oficial, que al ser objeto de concurso público, requieren la habilitación expresa de créditos de pago y compromiso, en el momento de la convocatoria pública de determinación de beneficios.

Por lo tanto, el campo concreto de las políticas de ayudas, directamente afectado por los requisitos de publicidad de los créditos afectados para el ejercicio 2003 es el siguiente:

Orden de 9 de octubre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras para compra de vivienda, que contempla en sus disposiciones adicionales 1.ª, 2.ª y 3.ª: la obligación de dar publicidad anualmente de los créditos disponibles para la financiación de las ayudas destinadas a la adquisición de vivienda libre usada; la formación y actualización de los citados créditos; el procedimiento formal a seguir para publicitar, en su caso, la suspensión de la concesión de ayudas, y finalmente los efectos de la citada suspensión sobre los expedientes en curso de resolución.

Etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduan, eta babes ofizialeko etxebizitza sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduan. Izan ere, bietan agertzen baita, xedapen gehigarrietan, 2002ko urriaren 9ko Aginduan adierazitako araudi bera, hitzez hitz.

Lehentasunez babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez eskuratzeari dagozkion lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduan, eta lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduan. Izan ere, bietan azaltzen baita goian adierazitakoen antzeko mekanismo bat. Lehen aginduaren kasuan, 9. artikuluaren 2., 3., 4. eta 5. puntuetan; bigarrenaren kasuan, 10. artikuluaren 2., 3., 4. eta 5. Puntuetan.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta eginkizunak ezartzen dituen otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, ondokoa

XEDATU DUT:

1. 2003. urtean etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan lagundu daitezkeen ildoak diruz estaltzeko ordainketa- eta konpromiso-kredituak iragartzea:

Orden de 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras para rehabilitación de vivienda, y Orden de 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre ayudas a la promoción de vivienda de protección oficial y medidas de fomento al alquiler: ambas reproducen literalmente en sus disposiciones adicionales la regulación anteriormente explicitada en relación a la Orden de 9 de octubre de 2002.

Orden de 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras en materia de suelo y urbanización referente a la adquisición onerosa de suelo para formación de patrimonios públicos de suelo con destino preferente a la promoción de viviendas de protección oficial, y Orden de 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras en materia de suelo y urbanización: ambas contemplan un mecanismo equivalente, en su definición y efectos, a los anteriormente comentados, la primera de ellas en el artículo 9, puntos 2, 3, 4 y 5, y la segunda, en el artículo 10, puntos 2, 3, 4 y 5.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 40/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, y sobre la base normativa en materia de vivienda y suelo, en vigor,

DISPONGO:

1.º Dar publicidad a los créditos de pago y de compromiso destinados a dar cobertura financiera a las líneas subvencionales en materia de vivienda y suelo, a conceder en el ejercicio 2003, que se indican a continuación:

| Babes daitekeen jarduna | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | Gainerakoa 2026 arte | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erabilitako etxebizitza librea erostea | 9.888.348 euro | | | | | 9.888.348 euro |
| Birgaitzea | 4.500.000 euro | | | | | 4.500.000 euro |
| Etxebizitza hutsak alokatzea, eta alokatzeko erostea | 55.000 euro | | | | | 55.000 euro |
| Lurzoruaren udal ondareak | 100.000 euro | 200.000 euro | | | | 300.000 euro |
| Lurzorua eta urbanizazioa | 200.000 euro | 400.000 euro | | | | 600.000 euro |
| Alokairuko sustapenak | 1.500.000 euro | 2.000.000 euro | 2.000.000 euro | | | 5.500.000 euro |
| Finantza-hitzarmenaren subsidioak | 308.916euro | 1.392.681 euro | 2.010.956 euro | 2.010.956 euro | 16.534.937 euro | 22.258.446 euro |
| GUZTIRA | 16.552.264 euro | 3.992.681 euro | 4.010.956 euro | 2.010.956 euro | 16.534.937 euro | 43.101.794 euro |

| *Actuación protegible* | *2003* | *2004* | *2005* | *2006* | *Resto Hasta 2026* | *Total* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *Adquisición de Vivienda libre usada* | *9.888.348 euros* | | | | | *9.888.348 euros* |
| *Rehabilitación* | *4.500.000 euros* | | | | | *4.500.000 euros* |
| *Arrendamiento viviendas Vacias y Adquisición para su posterior arrendamiento* | *55.000 euros* | | | | | *55.000 euros* |
| *Patrimonios Municipales de Suelo* | *100.000 euros* | *200.000 euros* | | | | *300.000 euros* |
| *Suelo y Urbanización* | *200.000 euros* | *400.000 euros* | | | | *600.000 euros* |
| *Promociones en Alquiler* | *1.500.000 euros* | *2.000.000 euros* | *2.000.000 euros* | | | *5.500.000 euros* |
| *Subsidios Convenio Financiero* | *308.916euros* | *1.392.681 euros* | *2.010.956 euros* | *2.010.956 euros* | *16.534.937 euros* | *22.258.446 euros* |
| *TOTALES* | *16.552.264 euros* | *3.992.681 euros* | *4.010.956 euros* | *2.010.956 euros* | *16.534.937 euros* | *43.101.794 euros* |

2. 2003. urteko ekitaldiaren kontura eta lehen esandako jardun babesgarriengatik eman beharreko diru-laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu 43.101.794 euro, edo, indarrean dagoen arloko araudiaren arabera aurrekontuan aldaketarik onartuz gero, eguneratzearen ondorioz sortutako kopurua.

Beraz, behin zenbateko hori agortuta, ez da diru-laguntza gehiagorik emango. Kreditua amaituz gero, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez jakinaraziko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

3. Edonola ere, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko araudiaren arabera baldintza guztiak bete eta baliabide ekonomikoengatik ukatu diren eskabideak hurrengo ekitaldi ekonomikoan ebatzi ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak Lurralde Ordezkaritzara edo arloko eginkizuna duen Zuzendaritzara idazki bat bidaltzen badu, eskabideari dagoen bezala eusteko asmoa duela adierazita.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko uztailaren 15a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVIN.

2.º El volumen total de ayudas a conceder con cargo al ejercicio 2003 y por las figuras protegibles relacionadas anteriormente, no podrá exceder de 43.101.794 euros o de la cantidad que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente aplicable.

No procederá, por tanto, la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, haciéndose público el agotamiento del crédito en el Boletín Oficial del País Vasco, mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales

3.º No obstante, las solicitudes que reúnan todos los requisitos para ser atendidas conforme a la regulación contenida en la normativa en materia de vivienda y suelo a la que se refiere la presente Orden y que se denieguen únicamente por falta de recursos económicos, podrán ser resueltas en el ejercicio económico siguiente, siempre y cuando el solicitante dirija un escrito a la Delegación Territorial o Dirección funcional gestora correspondiente, manifestando su intención de mantener su solicitud en las mismas condiciones.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de julio de 2003.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVIN.